

07 / GOIKOLAB
LABORATEGIA
ABIAN IKO-N

18 / KARMELE MANZISIDOR
Y JOSE MANUEL
BERGARETXE,
SERVICIO DE ORIENTACIÓN
AL EMPLEO



08 / EKOINGENIA-
RITZAKO GRADU
BERRIA ORONA
IDEO-N

MUниверситас

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2013ko udazkena | 25. zenbakia



EGOKITZAPEN
IKASTAROAK



- Minibusak (19-25 eserleku)
- Plataformadun autobusak
- Luxuzko autobusak
- 56-60 eserlekudun autobusak
- 78-80 eserlekudun autobusak

**BIDAIA BAT BAINO
ZERBAIT GEHIAGO**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

Tel.: 943 36 32 90

Mail: info@autocares-aizpurua.es

www.autocares-aizpurua.es



KOLDO MITXELENA Kulturunea

KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakegu, dohaineko *RealVideo* programa instalatu bezain pronto. Ikus: kmk.gipuzkoakultura.net



KOLDO MITXELENA Kulturuneko liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakegu, bertako liburutegietan guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. kmk.gipuzkoakultura.net

AURKIBIDEA

03

Editoriala

04-08

Berriak

09

Iritzia · Pedro Subijana

10-12

Gai nagusia

13

Iritzia · Estibaliz Zurimendi

14-17

Fakultateak

18-19

Elkarrizketa · Enplegurako
Orientazio Zerbitzua

20

Ikerketa

21

Ikasle ohiak

22

Tesiak

23

Mundukide

24

Kirol Zerbitzua

25

Nazioarteratzea

26

Agenda

GAURKOTU ETA GAITASUNAK
LANDU

Ekonomiak epe ertainean hobera egingo duenaren ahotsak entzuten hasi gara hainbat agintari eta adituren eskutik. Ez dakigu uste horiek beteko diren, nahiz eta baikor izan nahi dugun, baina zoritxarrez oraindik ere herritar askok lana aurkitzeko zailtasuna dute eta gure inguru hurbilean albiste oso ezkorra jaso dugu Fagor Etxetresnak enpresa aitzindaria hartzekodunen lehiaketan sartu izanarekin.

Halako gertaerek gure inguru osoan eragin dute nabarmen eta atsekabea zabaldu dute. Baina gure herriak oztopo guztiei aurre egiten ikasi zuen aspaldi; eta orain, inoiz baino gehiago, lehiakorrak izaten ikasi behar dugu, hemen zein atzerrian proiektuak defendatu eta lanpostuak sortzeaz gain horiei eusteko gaitasuna landuz. Mondragon Unibertsitateak helburu horri eutsi dio aspalditik eta etengabeko prestakuntza da ipar hori erdiesteko bideetako bat.

Testuinguru honetan kokatzen dugu, esaterako, Egokitzapen ikastaroen eskaintza. Horren bidez, ikasketa plan zaharreko titulazioak eskuratu zituztenak Bolognako esparru berrira egokitu ahal dira. Ikasle hauek kompetentzia berriak lortzen dituzte eta aurrerantzean Europara begira homologatutako titulua izango dute. Hainbat dira ikastaro hauek

egiteko arrazoiak eta eskuratzeko dituzten abantailak, baina finean horren alde egiten dutenek ikasitakoa gaurkotu eta jakintza biderkatuko dute.

Hortik harago, MUK profesionalen formakuntza beharrei erantzuteko eskaintza askotarikoa dauka, ia pertsonalizatua. Datu batzuk plazaratzearen, esanguratsua da adibidez MU PLUSen mantupean 2012-2013 ikasturtean 5.992 profesional ikasten aritu izana; horietatik 3.500 formazio iraunkorrean eta gainontzekoak graduondokoetan.

“Lehiakorrak izaten ikasi behar dugu, hemen zein atzerrian proiektuak defendatu eta lanpostuak sortzeaz gain horiei eusteko gaitasuna landuz.”

Aipatzekoa da, baita ere, MU PLUSeko ikasleen asetasun maila batez beste 8,1ekoa izan dela 2012-2013an, ikasturtez ikasturte nabarmen gora eginez. Honekin zerikusi zuzena du profesionalen erantzeteko diseinatutako eskaintza izateak.

Bide horretan jarraitzeak epe ertainean emaitzak ematen dituela sinesten dugu; horri ekin behar diogu.

MUniversitas

Argitaratzailea Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • [23. p.k.] ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxe: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

Koordinatzailea Arteman Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Susana Azpilikueta, Idoia Elizalde,
Maria Angeles Iñurritegi, Idoia Peñakoba eta Aitor Zuberogoitia.

Laguntzaileak Gentzane Aldekoa, Pedro Arrazola, Jokin Laspiur, Pedro Subijana, Estibaliz Zurimendi.

Tirada 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
Azaleko ilustrazioa Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Josetxo Aranzabal | **Moldiztegia** MCC Graphics



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

IKERBASQUE

El Dr. Matthias Weiss, experto en procesos de conformado de chapa y doctor por la Deakin University, colabora con la Escuela Politécnica Superior de Mondragon en su departamento de Mecánica y Producción Industrial.

Gracias a la Fundación Ikerbasque, realiza ensayos avanzados de caracterización de materiales (ensayos Strip Drawing Test, ensayos cíclicos de tracción-compresión y ensayos de tracción biaxial) utilizando la nueva máquina biaxial desarrollada y fabricada por el grupo de Procesos Avanzados de Conformación de Materiales.

Los resultados obtenidos permitirán el desarrollo de leyes de material y contacto avanzadas para su aplicación en la optimización de procesos de perfilado y estampación.

BCC, PREMIO CINCO DÍAS A LA INNOVACIÓN EMPRESARIAL 2013

Los premios Cinco Días a la Innovación Empresarial ya tienen ganadores en su edición de 2013: Endesa, Acciona y Basque Culinary Center.

El Premio a la acción empresarial más innovadora ha llegado a MU por medio del Basque Culinary Center, de cuya labor el jurado ha destacado "la transformación de un sector tradicional, el de la gastronomía, al que han elevado al nivel de industria, ayudando a mantener, en colaboración con Mondragon Unibertsitatea, la continua evolución de la cocina española".

El acto de entrega de los galardones tuvo lugar en el auditorio de CaixaForum Madrid. El jurado de esta edición ha estado formado por José Carlos Díez Gangas, que ejerció como presidente, Jorge Rivera García, Carlos de la Iglesia Fuertes, que acudió en representación de María Garaña Corcés, Montserrat Domínguez Montolí y Pedro Zuazua Gil, que ejerció como secretario con derecho a voto.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Jaurlaritzako, Diputazioko, Unibertsitateko eta bailarako herrietako ordezkariak elkartu ziren ekitaldian, besteak beste.



MU ARRANCA EL CURSO CON NOVEDADES

La apertura oficial del curso 2013-2014 tuvo lugar en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación en su campus de Eskoriatza el pasado 18 de septiembre. Iosu Zabala, rector de la universidad, subrayó el compromiso de MU por dar respuesta a la demanda de la sociedad y de las empresas, así como la adaptación de la oferta académica a estas necesidades.

Destacó también que las claves que mejor distinguen a la universidad son los altos niveles de rendimiento y la inserción laboral de sus alumnos. "Todo esto se consigue debido a la importancia que da la universidad a la innovación". Por todo ello, en los últimos cinco años se ha ampliado la oferta con cinco grados más.

Entre esos grados, los de Liderazgo Emprendedor e Innovación (LEINN) y el grado de Gastronomía y Artes Culinarias son pioneros y referentes en el Estado. Los otros tres grados se han comenzado a impartir este año. La Ingeniería Biomédica se desarrollará con la colaboración de Mondragon Health en Arrasate, y los otros dos títulos ligados a las energías y: la ecosostenibilidad se implantarán en el Polo de Innovación IDEO, promovido por el grupo Orona en Hernani. Zabala recordó asimismo que la universidad ha llegado a Bilbao con el proyecto Bilbao Berrikuntza Factoría. Se centrará en una oferta diferente en innovación y emprendimiento, dirigida a futuros emprendedores y a profesionales en activo.

HUHEZI-K AURTENGO IKASTURTEAN ESKAINTZEN DITUEN MASTER OFIZIALAK

Irailaren 30ean abiatu ziren HUHEZik aurtengo ikasturtean eskaintzen dituen master ofizialak:

1. Berrikuntza didaktiko-metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan (Berrimet): 29 ikasle, %100 *on line*.

2. Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan (Ekomu): 28 ikasle, %100 *on line*.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen masterra (BHM): 34 ikasle.

4. Ekonomia soziala eta enpresa kooperatiboa (MCOOP): 11 ikasle, %100 *on line*. Master berria da hau eta Enpresagintza fakultatearekin batera dago antolatuta.

100 ikasle baino gehiago beraz, master ofizialetan. Horiei batu behar zaizkie bi aditu tituluak 28ak (Komunikazioa Erakundeetan: 13; Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak: 15), Hezkuntzako egokitze-ikastaroetako (diplomatik gradura pasatzeko) 60ak eta Hezkuntzan bigarren aipamena lortzeko ikastaroetako 35ak.

BERRIAK

JORNADA SOBRE ALIMENTACIÓN DE LA POBLACIÓN SENIOR



AZTITECNICALIAYBASQUECULINARY CENTER HAN CELEBRADO EN LAS INSTALACIONES DE BCC UNA JORNADA SOBRE LA NECESIDAD DE SATISFACER LA NECESIDAD DE LA POBLACIÓN SENIOR. SE HA CENTRADO EN VARIOS CONTEXTOS DEDICADOS A ESA POBLACIÓN.

La industria alimentaria busca respuestas para satisfacer las necesidades de la población senior en el simposio 'Growing Young'.

- Conocer las preferencias y perfil sociológico de las personas maduras resulta esencial para crear nuevos productos adaptados a sus preferencias.
- El aporte de nutrientes específico a cada franja de edad debe formar parte de la formulación de los productos para el público senior.

Conocer las necesidades, preferencias y perfil sociológico de la población mayor de cincuenta años resulta fundamental para que la industria alimentaria sea capaz de desarrollar nuevos productos adaptados a sus demandas. Con el fin de dar a conocer las claves de este nuevo mercado, AZTI-Tecnalia y Basque Culinary Center (BCC) han organizado en

Donostia el simposio 'Growing young', que ha contado con la colaboración de la Asociación de Fabricantes y Comercializadores de Aditivos y Complementos Alimentarios (AFCA). En la apertura de la jornada han participado Peli Manterola, director de Calidad e Industrias Alimentarias del Gobierno Vasco; Rogelio Pozo, director general de AZTI-Tecnalia; Joxe Mari Aizega, director general de Basque Culinary Center; y Andrés Gavilán, presidente de AFCA.

La jornada, celebrada en las instalaciones de BCC, se ha centrado en el contexto sociológico, gastronomía aplicada, tendencias y demandas de los consumidores senior, así como en sus necesidades y en las particularidades de su dieta, a lo largo del proceso de envejecimiento.

“La jornada se ha centrado en el contexto sociológico, gastronomía aplicada, tendencias y demandas de los consumidores senior”.

**AZTI
TECNALIAK
eta BCCk**
antolatutako
jardunaldian
gastronomia
aplikatua eta
kontsumitzaile
helduen joera
eta eskaera
aztertu
zituzten.

TURBINAS DE AVIONES

Los grupos de investigación de Mecanizado de Alto Rendimiento y Diseño y Mecánica Estructural, compuestos por Pedro J. Arrazola, Exabier Fernandez, Aitor Madariaga y Ainara Garay, están trabajando en varios proyectos para Industria de Turbo Propulsores, SA recientemente firmado entre EPS e ITP. Una de las etapas de fabricación más críticas de las turbinas de motor de avión es la fase de mecanizado en cuanto a su repercusión en la vida a fatiga se refiere; en ello están incidiendo.

En los últimos años y dentro del mercado de fabricación de turbinas de avión, se ha producido un cambio drástico en el enfoque del negocio. Este cambio radica en que los proveedores habituales han pasado de vender una turbina y sus repuestos como mero producto, a vender horas de vuelo.

Se denomina pieza crítica aquella pieza cuyo fallo puede suponer la pérdida de la aeronave. En el caso de un motor de avión, los componentes más críticos son los discos de la turbina, los cuales sufren cargas mecánicas cíclicas a altas temperaturas de trabajo. Esto hace que su principal fuente de fallo sea debido al fenómeno de fatiga a alta temperatura.

Los objetivos establecidos son los siguientes: 1. Puesta a punto de un dispositivo o set-up experimental específico para analizar operaciones de mecanizado. En dicho set-up se mecanizarán varios en diferentes condiciones de corte; 2. El diseño y puesta a punto de una metodología para la integridad superficial, es decir, análisis de la topología de la superficie o rugosidad; defectos superficiales, tensiones residuales y vida a fatiga; 3. Aumento del conocimiento sobre cómo afecta el mecanizado a la integridad superficial y a la vida en fatiga; 4. Mejorar la condición de integridad superficial de agujeros mecanizados; y 5. Ampliar la ventana de proceso con el fin de aumentar la productividad pero asegurando una correcta calidad en la integridad superficial.

BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA

Mondragon Unibertsitatea Bilbora iritsi da Bilbao Berrikuntza Faktoria proiektuarekin. Gaur egungo enpresabideragari eta lehiakorak sortzeko beharri konponbidea eman nahi dio proiektu berri honek. Lidergora eta ekintzailetasunera zuzendutako laborategia izateko sortu da. Europan eta munduan erreferente izan nahi du eta horretarako hiru jarduera desberdin garatuko dira.

Hasteko, hezkuntza jarduera. LEIN Neko graduarekin hasiko dira baina beste zenbait gradu, masterrrek eta formazio iraunkorrek ere lekua izango dute. Ondoren inkubazioaren jardura ere izango da, eta jardura hori INIT enpresak eramango du, MUren eta enpresaren artean akordio bat baitago. Azkenik, Sendotzearen jardura izango da. Sendo lerrokatuta dauden enpresabatzen estrategia eta beraien inpaktua Bilbon, Euskal Herrian eta baita Europan ere aztertuko da.

HUHEZI-UVIC, ELKARLANA SENDOTUZ

Bigarren urtez jarraian, abian da dagoeneko HUHEZIK eta Viceko Unibertsitateak eskaintzen duten unibertsitate arteko doktorego programa (Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan). Iazko ekitaldia ekainaren 21ean Aretxabaletan buruturiko jardunaldiarekin amaituzen, UVic-eko ordezkari zabalba tartean zela; ikasurte honetako jardunaldi bateratua Vicen izango da. Aurten, gainera, HUHEZIKo 4 ikasle (Ainhoa Madariaga, Ane Simon, Garazi Iturzaeta eta Usue Uriel) eta irakasle bik (Elena López de Arana eta Eider Salegi) parte hartu dute UVic-ek urriaren 23an antolatutako VI. Unibertsitate-jardunaldietan. Horrez gain, abenduaren 9tik 12ra burutuko dute UVic-en International Workshop on Higher Education topaketa, eta bertan izango dira Agurtzane Bikuña eta Begoña Pedrosa HUHEZIKo irakasleak.

**COLEGIO
MAYOR**
Una experiencia abierta para la acogida e interrelación de estudiantes extranjeros y locales.

BITERI IKASTETXE NAGUSIA



Mondragon mugimendu kooperatiboaren sortzaile izan zen On Jose Maria Arizmendiarraren apustua izan zen Biteri Egoitza. Garai hartan, Debagoiena bailara inguruko baserrietan bizi ziren gaztetxoek bertan ostatu hartzen zuten eran, egun, munduko edozein unibertsitateko ikasleek eskaerak onartzen ditu.

Beti "La Resi" edo eta "Resia" esan zaion arren, Lanbide Heziketako ikasleak egoiliartzat jasotzen zituenean Ikastetxe Txiki (Colegio Menor) modura eratua zen. Aurrerago unibertsitateera luzatu zituen bere zerbitzuak eta 1995ean Ikastetxe

Nagusi (Colegio Mayor) bihurtu zen.

Atzeritarrak gurean egon daitezen azpiegitura aldaketa ugari izan diren eran, (logelak berri, asteburutan ireki, sukalde bat moldatu...), giro berria sumatzen da elkarbizitzan: azentu ezberdineko ingelesa totelka, janzkera, jatorduetako ohiturak... Honek guztiak Biterin antolatzen diren tertuliak, ekintza kulturalak, artistikoak, irteerak etab. nazioarteko ikuspegitik ikustea ekarri du.

Pertsonaren formazio integrala da Ikastetxe Nagusiaren xedea eta atzeritarrak gurekin izateak berau biribildu egiten du.

MICROSCOPIO ELECTRÓNICO DE BARRIDO DE EMISIÓN DE CAMPO

Corresponde a un equipamiento muy importante y necesario en el ámbito científico, sobre todo el relacionado con los desarrollos en materiales y procesos en muy diversos campos y sectores industriales. Ha sido adquirido por la Escuela Politécnica Superior, ya que diversas líneas de investigación son usuarias de esta tipología de equipamiento como:

Línea de Procesos Avanzados de Conformación de Materiales, Línea de Mecanizado de Alto Rendimiento, Línea de Tecnologías de Superficies, Línea de Plásticos y Compuestos y Línea de Fluidos.

Todas las líneas de investigación mencionadas han realizado y siguen realizando una cantidad importante de trabajos de caracterización y desarrollo de materiales y procesos. Ha sido imprescindible la realización de observaciones y análisis mediante microscopía electrónica de barrido. Los resultados de todos los trabajos desarrollados han dado lugar a varios artículos en revistas científicas, varios capítulos de libros, alrededor de 360 presentaciones en congresos y a la concesión de 18 patentes y modelos de utilidad.



CASI 50 ALUMNOS Y ALUMNAS han participado en la iniciativa impulsada en el Campus de la Escuela Politécnica de Mondragón.

EN MARCHA EL MASTER COACHING DE PERSONAS Y EQUIPOS

EL MASTER HA DADO COMIENZO A LA PRIMERA EDICIÓN CON EL OBJETIVO DE FORMAR FUTUROS COACHES PROFESIONALES, Y ACOMPAÑAR A DIRECTIVOS Y RESPONSABLES DE EQUIPOS QUE DESEEN PROFUNDIZAR EN LAS CLAVES DE UN LIDERAZGO BASADO EN PERSONAS.

El pasado enero comenzó a impartirse la primera edición de Master Coaching de personas y equipos que finalizara en enero del 2014. Este curso ha comenzado con 17 participantes y proceden de diferentes experiencias profesionales. El master se realizara en dos módulos.

El primer módulo denominado 'Competencias genéricas de liderazgo y trabajo en equipo' se centra en las bases de un liderazgo colaborativo. Las temáticas que se trabajan en él constituyen la piedra angular para el desarrollo de la actividad de coaching y acompañamiento.

En el segundo módulo, 'Captación básica en coaching', se pone en práctica todo lo que se ha aprendido e integrado en el módulo anterior dentro de un espacio de acompañamiento a personas y a equipos. Las personas que han realizado en el pasado el programa Experto en Liderazgo pueden matricularse directamente en este segundo módulo, sin haber pasado por el primero.

Aparte de la titulación master que se ofrece, este programa cuenta con la aprobación de la Internacional Coach Federation (ICF), por lo que aquellos participantes que superen los requisitos de programa pueden aspirar a certificarse como coaches ICF.

GOIKOLAB LABORATEGIA, ABIAN

2013-14 IKASTURTE HONETAN GOIKOLAB KOMUNIKAZIO BERRIKUNTZARAKO LABORATEGIA JARRIKO DUTE ABIAN MU-K ETA GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAK. KOMUNIKAZIO-PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEA IZANGO DA ARETXABALETAKO LABORATEGIAREN HELBURUA.



MUko graduetakoko ikasleak izango dira Goikolab-en motor nagusi. Berrikuntza hauspotzeko diziplinarteko taldeak eratzea funtsezkoa dela jakinik, Ikus-Entzunezko Komunikazioa (IKO) eta Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduetakoko kidez osaturiko taldeak eratu dira.

Talde horiek euren Gradu Bukaerako Lanak burutuko dituzte HUHEZIren Aretxabaletako campuseko ganbaran kokaturiko laborategian: komunikabide eta enpresek MUri helarazitako kasu eta arazo errealtzako konpon-

bideak topatu eta garatu beharko dituzte horretarako. Helburu hori betetzeko, sormenari eta ekintzailetasunari buruzko formazioa jasoko dute ikasleek; proiektuak garabidean jartzeko, berriz, Design Thinking metodologian oinarrituko dira.

Ikasle talde bakoitzak HUHEZIren Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduak irakasle bana izango du tutore moduan; horrez gain, Goienako kide laguntzaileak ere integratuko dira taldeetan, proiektuen gara-

EITB, GOBIERNO VASCO Y DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA plantearán proyectos para que sean desarrollados por los alumnos en el laboratorio Goikolab.

penean esperientzia profesionala bermatze aldera. Goio Arana izango da laborategiko koordinatzailea.

Goikolab-en jardungo duten taldeek Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk planteaturiko proiektuak garatu beharko dituzte. Nolanahi dela, IKO graduak Goikolabetik at egingo diren gradu bukaerako gainerako lan guztietan ere kasu errealei egin beharko diete aurre (Hekimen, Tokikom zein Goienarentzako proiektuak jorratuko dira, besteak beste).

Proiektu horien guztien aurkezpen publikoa ekain amaieran egingo da ekitaldi ireki batean; bertan elkartuko dira ikasleak, unibertsitateko tutoreak eta enpresa eta erakunde guztietako begiraleak. Hedabideak ere gonbidatuko dira ekitaldiak, eta BAC Mondragonek proiekturik onenak sarituko ditu. Ekaineko hori foro interesgarria izango da ideiak partekatu, elkarlana sustatu eta harremanak egiteko.

EKOINGENIARITZAKO GRADU BERRIA ORONA IDEO INNOVATION CITY-N



Joan zen irailean Oronak bere bazkide fundatzaileak omentzeko egindako ekitaldian Orona Fundazioa eraikina inauguratu ondoren, Mondragon Unibertsitateak Ekoingeniaritzako gradu berriari hasiera eman zion Donostialdeko *Orona Ideo Innovation City*-n. Ikasleek eta irakasleek elkar ezagutzeko garrantzitsua denez, 1. mailako irakasle taldeak ikasleei harrera egiten jardun zuen goizean zehar. Beste gauza batzuen artean, ikasleek unibertsitatearen eta beronen ezaugarrien berri izan zuten, eta bakoitzak aukeraturako tituluaren ezaugarri nagusiak gogoratu ahal izan zituen.

Ikasleen lehen bisita izan zen eraikinaren barru eta kanpoaldetik, eta horrek ikusmin handia sortu zuen. Talde txikitik banatuta eta irakasleen laguntzaz ezagutu ahal izan zituzten instalazioak. Horien artean, funtzio anitzeko gelak eta laborategiak, lokal soziala (jantokia), liburutegia... Aldi berean, (dagoeneko martxan daudenak zein laster prest izango direnak) kirol kan-txa ere ikusi ahal izan zituzten.

Azkenik, IDEO plazara irten da, Innovation City-a osotasunean ikusi ahal izan zuten, eraikin bakoitzeko eragile nagusiak (Orona, Orona Fundazioa, Ikerlan-IK4, MU...) identifikatuta eta eraikin bakoitzaren ezaugarriak ezagutzen.



IKA MIZKA, GAZTEEN HIZKUNTZA JARRERAK ALDATZEKO EKIMENA

Ika Mizka euskararen aldeko egitasmoak hasi du bere bigarren edizioa. Gazteen hizkuntza jarrerak aldatzea du helburu Gazte-zulok eta Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako egitasmo honek.

Iaz hitzordu bakarreko ekimena izan zen EHUren Donostiako campusean, Euskararen Nazioarteko Egunean. Aurten, berriz, hiru saio izango ditu. Lehenengo saioa Ordizian izan zen, Mondragon Unibertsitateko campusean, urriaren 23an. Bigarrena, berriz, azaroaren 14an izango da Eibarren EHUren campusean, eta azkena Irunen abenduaren 3an, MUren Bidasoako campusean.

Euskara uste baino espazio eta esparru gehiagotan sormen eta komunikazio tresna baliagarria dela transmititu nahi da egi-

tasmo honekin. Horretarako, euskal musikari, kirolari, aurkezle eta idazleak egongo dira mahai inguruetan izena ematen duten beste lagunekin batera, eta Nerea Aliasek gidatuko ditu saioak. 'Euskaraterapia' moduko bat dela diote antolatzaileek, edo horrelako giro bat sortu nahi dute behintzat. Mahai inguruetan, euskara bultzatzeko pertsonen gorabeherak azalduko dituzte, haien esperientzia kontatuz eta hizkuntzak dituen oztopo edo aldaketan inguruan hitz eginez.

Parte hartzeko interesa duten gazteek gaztezulo.com webgunearen bitartez eman dezakete izena. Ika Mizka atalean sartu eta bertan topatuko dute nahiago duten saio eta txandarako leku bat gordetzeko bete beharreko formularioa.

KIMU BERRIKO IRABAZLEAK

Mondragon Unibertsitateko ikasleek proiektu berritzaile batzuk aurkeztu eta ikusgai jarri dituzte, gazteen ekintzailetasuna sustatzeko helburuarekin. Hona-ko hauek izan dira irabazleak Kimu Berri modalitatean:

Lehen saria: Ibai Añorga, Janire Arribalzaga, Jokin Intxausti, Mireia Ortigosa, Ander Larrucea eta Oiar Corujo 'Smart Mobility' proiektuarekin (alokairuko bizikleta elektrikoaren garraio sistema adimenduna).

Bigarren saria: Alex Gutiérrez, Leire Mendikute, Maria Vivar, Ignacio Caballero eta Garbiñe Segurola, 'Hiri hondakinen trin-

kotze sistema' proiektuarekin. Proiektu horrek etxean sortutako hondakin bolumena murriztuko duen produktu edo zerbitzu posible baten inguruko ikerketa egin nahi du, birziklapena errazteko eta hondakin kopurua murrizteko.

Hirugarren saria: Jokin Otaegi, 'PRT-Personal Rapid Transit' proiektuarekin. Otaegik dioenez, proiektu horretan bideragarritasun plan alternatiboa eta ondorengo diseinua burutzen dira: gida bidezko bideetan funtzionatzen duten ibilgailu txikiak dira, ordenagailu zentral batek eraikiak eta gidatuak.

BERRIAK

AMPLIACIÓN DEL CAMPO DE BATALLA

Tradicionalmente, los cocineros hemos tendido a diferenciarnos de la industria poniendo en valor el carácter artesanal de nuestro trabajo: nosotros somos artesanos, vosotros no. Esta afirmación mostraba un cierto aire beligerante frente a lo industrial y bajo ella subyacía una especie de confrontación ideológica entre dos maneras totalmente distintas de aproximarse a la preparación de los alimentos. “Apoyándonos en nuestras manos y nuestra intuición, nosotros hacemos la cocina como Dios manda”. “La cocina es un arte y como tal no está sujeta a normas que no sean puramente gastronómicas”. Hemos repetido frases como estas miles de veces, casi como portavoces de una especie de anarquía civilizada.

Pero las cosas han cambiado mucho en las tres últimas décadas, un periodo en el que la cocina y todo lo que la rodea han evolucionado más que en los cien años precedentes. Cuando esta evolución-revolución comenzaba a fraguarse, unos cuantos de nosotros ya empezábamos a lamentarnos por el hecho de no contar con la ayuda y el apoyo de los científicos para profundizar más en el conocimiento de nuestras cocinas. Sabíamos, por intuición y experiencia, qué era lo que teníamos que hacer para conseguir un resultado concreto, pero no disponíamos de una explicación rigurosa de esos procesos desde el punto de vista de la ciencia. Científicos y cocineros funcionábamos en esferas distintas e inconexas. Nuestro reconocimiento a nivel social todavía tardaría bastante tiempo en llegar y el simple hecho de sentarse a hablar con los profesionales de la ciencia parecía algo fuera de nuestro alcance.

Con el transcurso del tiempo y gracias a nuestra constancia, los cocineros fuimos alcanzando esa notoriedad, al mismo tiempo que el propio ejercicio de nuestro trabajo iba incrementando nuestra curiosidad. Poco a poco se fueron estableciendo puentes con el mundo de la ciencia y hoy en día la relación entre ambos mundos es algo normal. Nuestras necesidades, nuestros problemas, nuestras dudas... nos han llevado a plantear preguntas a los científicos e ingenieros, y sus respuestas, además de despejarnos el camino, han hecho también evolucionar a la industria alimentaria, dando pie a la creación de diversos aparatos

alimentaria, y puesto que necesariamente tiene que existir, mejor será que esté tutelada por expertos en la elaboración artesanal y en los matices del gusto. La creciente colaboración entre cocineros e industria está dando grandes frutos en este sentido y se están consiguiendo resultados de gran calidad.

El manejo de la semántica puede tender a polarizar una realidad que es sin duda más compleja. Y dentro de esa polarización, el miedo a ser tildado de “industrial” o de “tecnológico” ha podido impedir en algún caso a ciertos chefs, incluso a amplios colectivos dentro de esta profesión, evolucionar y buscar nuevos caminos y, por tanto, los ha llevado a desechar herramientas con las que podrían haber dado lugar a creaciones brillantes. Y al revés, también habrá quienes, cegados por el brillo de la tecnología, se hayan dedicado a desarrollar una cocina artificiosa e irreflexiva, camuflando sus carencias de base bajo un deslumbrante despliegue de herramientas y trucos que los hace pasar por “vanguardistas”. Ambas posturas rechazan respectivamente “lo industrial” o “lo artesano”, como si el uno eliminase al otro necesariamente. Por fortuna, no es así, y hoy en día resulta imprescindible recurrir a lo mejor de ambos mundos para poder ejercer nuestro oficio con pleno conocimiento de lo que tenemos entre manos.

¿Artesanos? ¿Artistas? ¿Industriales? ¿Científicos? ¿Trepas?... ¿En qué medida se ajustan hoy todos estos adjetivos a nuestro quehacer profesional? No seré yo quien se atreva a responder a esta pregunta. Prefiero dar paso a los eruditos con los que vamos a tener la suerte de contar en esta nueva edición de Diálogos de Cocina y dejar que sean ellos quienes deshojen la margarita.

“Hoy en día resulta imprescindible recurrir a lo mejor de ambos mundos (“industrial” y “artesano”) para poder ejercer nuestro oficio con pleno conocimiento de lo que tenemos entre manos.”



Pedro Subijana
Chef del Restaurante Akelarre y miembro del Patronato de la Fundación Basque Culinary Center.

que hoy en día facilitan la labor en las cocinas, tanto profesionales como domésticas. En los últimos tiempos, gracias a esa relación simbiótica han hecho irrupción en el día a día de nuestros restaurantes utensilios y aparatos que jamás habríamos imaginado en una cocina, herramientas más propias de un quirófano o un laboratorio, una nueva tecnología que ha transformado nuestras tareas, ha modificado tiempos y espacios y nos ha expandido el campo de batalla.

Y este enriquecimiento se está dando en los dos sentidos. Hoy en día el mundo no podría salir adelante sin una industria

EGOKITZAPEN IKASTAROAK

DIPLOMATUEK EDO INGENIARI
TEKNIKOEK PLAN BERRIRA
EGOKITZEKO DUTEN AUKERA DA
EGOKITZAPENA. IAZKO
IKASTAROAN HASI ZIREN
ESKAITZA HONEKIN MU-N

Plan zaharreko titulazioak Bolognako esparru berrira egokitzea da Egokitzapen Ikastaroen helburua. Ikasleek konpetentzia berriak lortzen dituzte, eta gainera Europara begira homologatutako titulua ere izango dute. Irakasleek eurek ere ikastaro hauetara egokitu beharra izan dute; izan ere, *on line* edo *blended* modalitatean eskaintzen dira, eta irakasleek metodologia berrira egokitu behar izan dute.

Zer dira Egokitzapen Ikastaroak?

Mikel Mesonero: Plan zaharreko titulazioa dutenek (diplomatuek), hainbat kreditu eginez, Bolognako esparru berriko gradua lortzeko aukera dute. Plan berrira egokitzea dela esan daiteke. Ikasketak hauek egitearen arrazoiak ezberdinak dira. Batzuek titulua lortzea nahi dute, horrek arlo publikoan pisua daukalako. Gure kasuan, gradua garai bateko diplomaturarekin alderatuta oso ezberdina denez eta beste konpetentzia mota batzuk lantzen direnez, gaurkotzeari balioa ematen diote.

Begoña Pedrosa: Ikasle hauek diplomatuak dira, eta argitu behar da euren titulazioarekin jarraitzen dutela, ez dutela diploma galtzen. Aukera dute gradua lortzeko, nolabait kategoriaz igotzeko edo bes-

te ibilbide batean titulazio lortzeko. Hainbat konpetentzia berri lortu eta egokitzeko aukera dute. Gainera, merkatura begira goi mailako titulazioak lehenesten dira.

Gentzane Aldekoa: Atzerrira lan bila joateko ere balio du. Hemen lortzen den gradua Europako beste graduen parekoa da; lehen, ingeniari teknikoekin ez zen hori gertatzen.

“Ikasleek aplikazio praktikoa bilatzen dute”.

Garai batean jaso zuten formazioarekin alderatuta, zer balio erantsi dauka gradua lortzeko?

B.P.: Ikasleek aukera dute beste konpetentzia batzuk garatzeko. Batetik, profesionalak dira, eta askok ibilbide profesionala badaukate; bestetik, graduak berak aukera eskaintzen du praktikuma egiteko. Practicumak, gainera, kreditu askoz ere gehiago eskatzen ditu.

M.M.: Uste dut oso garrantzitsua dela ikasleen motibazioa. Dagoeneko esperientzia bat duten ikasleak dira, eta horregatik

LOS
PROFESORES
Begoña, Mikel
y Gentzane.



aplikazio praktikoa bilatzen dute. Ikasketa ikuspuntu batetik horrek balio handia ematen die. Ikasgaiak egungo ikasketa planetik ateratakoak dira eta hori aurrerapauso garrantzitsua izan daiteke.

G.A.: Gure esperientziaren arabera kurtsoa egitera etortzen dira tituluaren beharra daukatalako. Helburua titulua da, baina argi daukate ez datozela denbora galtzera. Denbora inbertitu behar badute, etekina atera nahi dute. Motibazioa altua da eta gainera jantzita datoz, esperientzia profesionala daukate; hortaz, ikasgaiarekiko eta irakaslearekiko jarrera ezberdina da. Amaieran esaten dute esfortzu altua eskatzen duela, baina merezi izan duela. Lanean dagoen jendearendako aukera polita da, eta, baita unibertsitatearendako ere, profesionalengana titulu ofizial batekin hurbildu garelako.

B.P.: Guztien beharrak asetzea, eta guztien motibazioak kontuan hartzea ezinezkoa da. Baina curriculumak eraikitzeko



aurrean bat egon da. Beharrak zeintzuk ziren aztertu genituen: adibidez, Hezkuntza Bereziko eremuan diplomatua den batek zer behar du orain Atzerriko Hezkuntzako espezialitatea lortzeko? Ze kompetentzia orokor garatu behar ditu?

G.A.: Beldurrak ere izaten dituzte. MU PLUSeko eskaintzako kurso askotan ez da kontrolik izaten, baina ikastaro hauetan bai; hortaz, berriro ere unibertsitatera bueltatzea da. Beste aldagai bat *on line* edo *blended* ikastea da.

Ikasketa planari dagokionez, jatorrizko diplomatura ez den beste batean gradua lortzeko aukera eskaintzen duzue.

B.P.: HUHEZIn hiru eskaintza ezberdin ditugu egokitzapen ikastaroetan. Bata da bertitulazioa egitea: adibidez, Hezkuntza Berezian espezialista batek gradua ere Hezkuntza Berezian egingo du. Beste aukera bat da ibilbide aldaketa egitea: Hezkuntza Berezian espezialista denak, adibidez, Atzerriko Hezkuntzan

BEGOÑA PEDROSA es profesora de **HUHEZI** y coordinadora del Grado de Educación On line; **MIKEL MESONERO** es el coordinador académico de Enpresagintza; y **GENTZANE ALDEKOA** es la coordinadora de Formación Continua de EPS.

espezialitatea egitea. Azkeneko eskaintza gradu aldaketa da: Haur Hezkuntzako batek aukera dauka Lehen Hezkuntzako gradua egiteko edozein espezializazioetan. Hau guztia erritmo ezberdinetan egin daiteke, urtebetean edo bi urtetan. Ikaslearen jatorrizko titulazioaren arabera egokitzen da gradua.

M.M.: Gure kasuan, garai bateko titulua Enpresagintzan diplomatua zen; hortaz, horiek guztiek egokitzapen ikastaroa egiteko aukera izango dute. Titulazio bakarra dugu eta erritmo bakarrean egitekoa, urtebetean etagutziz *on line* egin daitekeena.

G.A.: Teknikoek egokitzapen kurtsoa espezializazio berean lor dezakete: Mekanika, Elektronika, Diseinua, Informatika eta Telekomunikazioak. Beste aukera bat da Antolakuntzako gradua lortzea: Mekanikako edo Elektronikako titulazioa izanik Antolakuntzako gradua lortzeko egokitzapen kurtsoa egin dezakete, eta, beste titulazio bat lortzeaz gain, Antolakuntza Industrialeko kompetentziak lantzen dituzte.

Zuek, irakasleok, nola egokitu behar izan duzue ikastaro hauetara?

B.P.: Curriculum oso ondo ezagutzea garrantzitsua da, kasu honetan jakitea diplomaturan zer eskaini zen eta baita gradu berrian zer eskaintzen den ere. Begirada orokor hori izan behar duzu eskaintza ezagutzeko. Horrez gain, irakasleen prestakuntza materialak *on line* egokitzeko funtsezkoa izan da prozesu honetan.

M.M.: Gure kasuan, curriculum baino gehiago irakasleok metodologiara egokitu behar izan dugu. Azken finean, %100 *on line* da eskaintza; gauza bat da erreminta teknologikoak laguntza bezala erabiltzea eta beste gauza bat da zure metodologia didaktiko bakarra hori izatea. Errektoretzan dagoen lan taldearen bitartez formazioa jaso dugu erreminta ezberdinen inguruan. Esan behar da, gure egokitzapen kurtsoan parte hartzen duten irakasle guztiek guztiz *on line* den master batean parte hartzen dutela. Hortaz, lan hori nahiko bideratuta dute. →



→ **G.A.:** Nik bi puntu gehituko nituzke. Batetik, ikasleen profila: egokitzapen kurtso hauetan 30 urtetik gorako profesionalak ditugu, batzuetan irakasleak baino adituagoak diren gai batzuetan. Irakasleak profil hori kudeatu egin behar du eta unibertsitate irakasleendako erronka bat da hori. Bestetik, ikasle hauek unibertsitate ezberdinetatik datoz; eta gure unibertsitateak daukan metodologia eta proiektuak egiteko erara egokitu behar dira.

Ikastaroak *blended* edo *on line* izan daitezke.

M.M.: Gurean dena *on line* izango da baina egongo dira saio batzuk presentzialak, eurek horrela eskatuta. Egitura izango da: hilabete batean ikasgai bat hasi eta bukatu. Nik uste dut horrelako jendeari zuzentzeko, gaur egun, gutxienez *blended* izan behar dela eskaintza. Profesionalengana hurbiltzeko beharrezkoa duzu presentzialtasuna leuntzea.

B.P.: Irakasletzarako Egokitze ikastaroak erdi-presentzial edo *blended* modalidadean eskaintzen dira. Horrez gain, *practicum* ere egiten dugu, eta ez da erraza izaten dena uztartzea. Gure eskaintzan praktikak 14 astekoak dira; lehenengo lauhilekoan egonaldi bat eta bigarren lauhilekoan bestea. Oso argi dau-

kagulan bide honetan kompetentziak lortzeko eskolara joan beharra daukatela. Nahiz eta profesionalak izan, gutxieneko batzuk bermatu behar ditugu eta horretarako dagokion espezializazio horretan trebakuntza bat jasoko dute.

G.A.: Gure kasuan, gradu proiektuak 300 ordukoak dira. Enpresetan dauden pertsonen proiektu bat planteatzen dute eta guk hori aztertu eta baldintzak betetzen dituztela ikusiz gero lan hori proiektu moduan aurkezteko aukera izango dute. Enpresan ez daudenei edo enpresako lana aurkeztu ezin dutenei hemendik esleitzen zaizkie proiektuak.

“Ikastaroak *on line* izatea garrantzitsuak dira etengabeko formazioarekin jarraitzeko”.

Egokitzapen ikastaroak zer diren eta nori zuzenduta dauden azaldu zuten hiru irakasleek.

Noiz hasizarete eskaintzarekin?

M.M.: Gurea eskaintza berria da, urri bukaeran hasi gara.

B.P.: Aurten bigarren ikasturtea izango dugu. Iaz, guztira, 130 bat lagun matrikulatu ziren, eta aurten Egokitzapen Ikastaroan guztira 128 lagun dauzkagu matrikulatuta, aurreko ikasturteko eta ikasturte honetako ikasleekin.

G.A.: Orain dela pare bat urte hasi ginen Gipuzkoako Peritua eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialak martxan jarritako proiektu baten ondorioz. 200 ikasle baino gehiagok egin dute ikastaroa COPITIGen bitartez iritsi gara jende askorengana. Azken finean, ikastaroa *on line* izateak garrantzia izan du, gaitzaren ez baitago etengabeko formazio hori jasotzeko aukerarik.

Zer da ikasleek gehien baloratzen dutena?

M.M.: Titulazioa baloratzen dute. Gure arloan ez dugu sektore publikoko jende asko; hala ere, euren enpresetan promozionatzeko garrantzitsua ikusten dute gradua lortzea.

B.P.: Erdi-presentziala izatea, batik batik. Ikasle askorentzat aukera paregabea da beste espezializazio bat lortzeko adibidez, lanean daudelako edo ate gehiago zabaltzen zaizkielako.

IKASTERA JOAN IRAKASTEN ARITZEKO

Antolakuntza industria-
leko Ingeniaritza
Teknikoa ikasi nuen
Donostiako EHUⁿ,
ondoren bi master egin nituen
Mondragon Unibertsitatean eta
orain 38 urterekin egokitzapen
ikastaroan nabil. Honen
inguruan bi urte neramatzan
zerbait entzuten, eta iaz
erabaki nuen ikastaroa egitea.
Non eskaintzen zen eta baldin-
tzak ikusi nituen, eta hau
iruditu zitzaidan egokiena.
Momentu ona zen niretzat eta
baldintza onak eskaintzen
zituen. *On line* ere egin zitekee-
nez aukera paregabea iruditu
zitzaidan lanarekin eta seme-a-
labekin uzartzeko.

On line eskaintza honek
asko erraztu dizkit gauzak,
bestela ezinezkoa nuelako
klaseetara joatea. Denbora
aldetik ere ondo kudeatu
nezakeen, azken finean
ikastearen kontu hori hiru
hilabeteko kontua besterik ez
zen eta denbora hori bakarrik
moldatu beharko nukeen.
Denbora gutxian egitearen
kontua oso garrantzitsua zen.
Proiektua orain nabil egiten
eta hori abenduan gainditzen
badut, azken finean 9 hilabete-
tan hasi eta bukatuko dut.
Planteamendua ere, oso ona
izan da, ikasgaika egin delako
ikastaroa. Hasi eta bukatu,
hasi eta bukatu, hasi eta
bukatu.

Titulua izatea onuragarria
izango da, linbo batean bai-
keunden ingeniari tekniko
industrialak, bai Euskal
Herrian, baita Espainian ere.
Hemendik kanpo ez genuen

ezer, eta honekin gauzak argitu
egin dira. Esan nahi nuena da,
hemen badudala zerbait eta
baita hemendik kanpo ere, ni
hemen nago eta nire ikasketak
hauek dira. Nire intentzioa ez da
kanpora joatea baina Bologna-
ren kontu honekin gauzak
argitu ditut.

Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzan nabil irakasle
moduan lanean, ez naiz funtzio-
narioa eta ikasketa hauek ondo
etorri zaizkit oposizio batzuei
begira, ateak zabaldu dizkidate.
Matematika emateko egokiak
dira; izan ere Ingeniaritza
Teknikoarekin kili-kolo geratzen
ginen, ez genekien zein egoera-
tan, eta horrek bultzatu nin-
duen ikastaroan izena ematera.
Prestakuntza aldetik ondo etorri
zait, baina baita ere ikasketekin
lotzeko.

Oso gustura egon naizen
arren, sakrifizio bat izan da
denbora aldetik, bai haurrengatik,
bai eta lanarengatik. Gu
ikasketa batzuk eginda gatoz,
nire kasuan 38 urte dauzkat,
orain dela asko utzi nuen
ikasketen erritmo hori, bai
ikasgaiak baita azterketak ere.
Nire lanetik kanpo dagoen
zerbait ikastea asko gustatu zait,
baina sakrifizio bat izaten
jarraitzen du.

Laburbilduz, oso aberasga-
rria izan da, bai esperientzia
aldetik baita jakintza aldetik ere.
Irakasleak ere oso ondo ikusi
ditut. Bakoitzak bere erara
eramatan zituen klaseak, oso
desberdinak ziren beraien
artean baina hala ere oso ondo
egon dira, prest baitzeuden
edozer gauzatarako.

Eztibaliz Zurimendi Elorriaga

DBHko
irakaslea.
Mekanikako
egokitzapen
ikastaroa egin
du.

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA, *ON LINE*



2013-14 IKASTURTEAN ESTREINAKOZ ESKAINI DU HUHEZI-K HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAK *ON LINE* EGITEKO AUKERA IKASKETA-PROZESUAN ZEHAR. HORI BAI, AURREZ AURREKO SAIO BATZUK ERE TARTEKATUKO DIRA BI ASTEAN BEHIN

Ikasketa-mota honen atea zabalduta, HUHEZIKo Hezkuntza gradu biak sarean eta euskaraz jarraitu ahal izango ditu matrikulatzen den ikasleak: horri esker, gainera, ikasketak modu malguagoan burutu ahal izango ditu.

Esandako moduan, ikasketa-prozesuan zehar aurrez aurreko saio batzuk ere tartekatuko dira.

Aurrez aurreko eskola horiek Eskoriatzan izango dira, bi astean behin, arratsaldean (18:00-21:00 bitartean). Horrez gain, izango dira aurrez aurreko bes-telako saio bakanen batzuk ere materiak ebaluatzeko.

Praktikei dagokienez (2, 3 eta 4. mailatan izaten dituzte ikasleek kanpo-praktikak), aurrez

Ikasleek aurretiaz eginiko ikasketen edo titulazioen arabera oinarrizko kredituen konbalidazioak izango dira.

aurre burutu beharrekoak izango dira, ikasleek beraiek aukeratu-tako zentroetan. Lehenbiziko maila da aurrez *on line* egiteko indarrean jarri dena. Begoña Pedrosa eta Olaia Jimenez irakasleak ari dira eskaintza berri hau koordinatzen.

AURTEN 18 IKASLE

2013-14 ikasturte honetan 18 ikasle eman dute izena ikasketamota hauetan: hiruk Haur Hezkuntzan eta 15ek Lehen Hezkuntzan. Hainbat kolektibori zuzenduta dago eskaintza hau. Honako hauei, besteak beste:

1. Aurretik goi-mailako edozein ikasketa egina dutenei (diplomatu, lizentziatu, ingeniari edo arkitektoak).
2. Helduentzako unibertsitateko sarrera-proba gainditu duten pertsonen.
3. Lanbide Heziketako Goi-Mailako Moduluak (Hezkuntza alorrekoak) eginak izateaz gain bosturteko eskarmentua dutenei.
4. Goi-mailako kirolariak. Ikasleek aurretiaz eginiko ikasketen edo titulazioen arabera, bestalde, oinarrizko kredituak baliozkotu egingo dira: horrela, Pedagogia gradua zein lizentziatura edota Gizarte Hezkuntza diplomatura eginikoei 64 kreditu aitortuko zaizkie, eta Psikologia lizentzia dutenei, berriz, 22.

JATORRIZKO HIZKUNTZEN BIZIBERRITZEAN ERREFERENTZIA

Garabide eta HUHEZIREn artean, bigarrenaz, aditu titulua jarri da abian Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategietan, munduko hainbat jatorrizko herritako eragileekin. Irail amaieran hasita, abenduaren erdira arte iraungo du.

Hona 15 ikasleko ordezkaritza: kitxua otavaloak (3), kitxua puruwak (2), nasak (3), kaqchikela (1), nahualtla (1), maia yukatekoa (1), mobida (1) kurdua (1) eta amazigha (1).

KOMUNIKAZIOA ERAKUNDEETAN, BIGARRENEZ

Urriarekin batera jarri zen martxan, 13 ikaslerekin, Komunikazioa Erakundeetan aditu tituluaren bigarren edizioa Aretxabaletako campusean. Aditu honen helburua da ulertzea komunikazio paradigma berriak eta aztertzea horiek erakundeetan duten eragina: erakundeetako profesionalak prestatu nahi dira, berauetako komunikazio-jarioa bideratzeko. Bederatzi hilabeteko ikastaroa izango da eta ostegun arratsaldeetan emango da, euskaraz.

DE VUELTA A LA UNIVERSIDAD



GABRIEL LÓPEZ MENDICUTE, RESPONSABLE DE PRODUCCIÓN DE ESTRUCTURAS MECANOSOLDADAS Y PROCESOS NO CONVENCIONALES EN LA EMPRESA ITP, HA VUELTO A LA UNIVERSIDAD. LA EMPRESA LE HA OFRECIDO CURSAR UN MASTER EN MU SOBRE DIRECCIÓN DE OPERACIONES

¿Cómo surge la posibilidad de volver a estudiar?

En la apuesta fuerte de ITP por la formación de sus empleados me ofrecen la posibilidad de realizar este Máster organizado tanto por Mondragon Unibertsitatea como por Asenta y la Cámara de Comercio de Bilbao. ITP colabora con estas empresas

“Es un Máster con visión completa que me permite ser un profesional más competente y aplicar una serie de técnicas y herramientas en la gestión diaria de mi trabajo”.

tanto en actividades de formación como en la consultoría de distintos proyectos.

¿Por qué estás realizando este Máster?

Resulta ser un Máster con visión completa que me permite ser un profesional más competente y aplicar una serie de técnicas y herramientas en la gestión diaria de mi trabajo.

¿Cómo te sientes al volver a la Universidad?

Encantado de ponerme al día de las distintas herramientas de gestión.

¿Cómo ha cambiado la relación con el profesor?

El profesor resulta ser un proveedor que trata de satisfacer las inquietudes que día a día sus clientes, los alumnos, le transmitimos.

¿Cómo compatibilizas el estudio, el trabajo y la vida personal?

Es un reto encontrar el equilibrio entre estudio, trabajo y vida personal pero el beneficio del esfuerzo que supone tanto para el alumno como para la empresa que decide enviarnos un año todos los viernes a hacer el Máster es incalculable tanto desde el punto de vista de la aplicabilidad de las herramientas como de la motivación del propio trabajador.

¿Qué te aporta esta nueva formación en tu trabajo?

Claras habilidades y competencias para el mejor desempeño de mi trabajo.

CONCURSO DE DISEÑO INTERNACIONAL JAMES DYSON AWARD

El proyecto de Andoni Iglesias y Gorka Muñoz, alumnos de diseño de la Escuela Politécnica Superior, entre los nueve finalistas nacionales del concurso. El proyecto denominado Savesphere trata de un sistema de ayuda para un rescate que responde a necesidades no cubiertas por los sistemas de socorro actuales. En él han participado un total de 650 proyectos de estudiantes universitarios de Diseño de producto, Diseño industrial e Ingeniería de 18 países y que tiene como objetivo que los estudiantes diseñen algo que solucione un problema. Más información en: <http://jamesdysonaward.org/>



SAVESPHERE. GEPEko diseinu ikasle Andoni Iglesias eta Gorka Muñozen proiektua, lehiaketako bederatzi finalisten artean.

GIZARTE-ERANTZUKIZUNARI ETA EKINTZAILTZARI BURUZKO JARDUNALDIA

MU-K URRIAREN 17AN FICOBAN BIDASOA ESKUALDEKO 200 IKASLE BILDU ZITUEN GAZTERS 3, BIDASOA ESKUALDEAREKIN KONPROMETITUTAKO EKINTZAILEAK JARDUNALDIAN. HELBURUA, BIDASOAKO SEKTORE ESTRATEGIKOEN NEGOTZIO-EREDU BERRIA SORTZEA ETA BIRMOLDATZEA DA, GIZARTEAREKIKO NEGOTZIO ARDURATSU BIHURTZEKO.

Jardunaldiko parte-hartzaileek eskualdeak dituen arazoak jorratu zituzten gizarte, ekonomia eta ingurumen ikuspegitik, eta horientzako irtenbideak aurkitu zituzten. Arazo horiek RESOT mugaz haraindiko proiektuen barruan antzeman dira. Horren helburua, Europa 2020 estrategiari jarraiki, gizartearekiko arduratsua diren dinamikak sustatzea da, dinamika horiek, aurretiko proiektuak (hala nola INNOV Mugabe eta ERLAN) osatzeko erabiliz. MUren Enpresagintza fakultatea eta haren MIK ikerketa-zentroa dira proiektuaren buru, eta Irungo Udalak, Hondarribiko Udalak, Communauté de Communes Sud Pays Basque-k eta Bidasoa Bizirik-ek hartu zuten parte. Aurrez, eskualdeko sektoreen egoerari buruzko ikerketa egin zen.

JARDUNALDIA

GAZTERS programaren hirugarren edizio honetan, hain zuzen, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradu ikasleez gain, Irungo La Salleko, Pio Baroja Ikastetxeko (Irun), Bidasoa LHko (Irun), Talaia Ikastetxeko (Hondarribia) eta Ama Guadalupekoa Ikastetxeko (Hondarribia) ikasleek ere hartu zuten parte jardunaldian.

Irungo alkateak eman zion hasiera jardunaldiari. Ondoren, Hondarribiko Udaleko Kultura zinegotziak, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako dekanor Lander Belokik eta Mondragon Unibertsitatearen MIK ikerketa-zentroko zuzendari nagusi David Sanchezek gizarte-erantzukizunari buruzko

nozioak eskaini zituzten, baita Bidasoa Eskualdearen arazoei eta erronkei buruzkoak ere. Jarraian, ikasleek diziplina anitzeko lantaldean osatu zituzten, eta baita gizarte-erantzukizunaren bitartez Bidasoa eskualdeko bentetako arazoei irtenbideak aurkitzeko proposamenak landu ere. Zehazki, ikasleek beraiek hamar sektoreen artetik aukeraturiko bost sektore landu zituzten, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Ikastetxe bakoitzak bere proposamenak aurkeztu ondoren (15:00etatik 16:30era), ikasleek aurkezturiko proiektu onena aukeratu zuten topaketari amaiera emateko. Proiektuek eskualdeko benetako arazoak izan zituzten oinarri. Jardunaldia sari-banaketarekin amaitu zen.



BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA BEREZIA

Berdintasuna sustatze aldera, MUko Enpresagintza Fakultateak ekintza berezi bat antolatu zuen urriaren 16an, Oñatiko campusean.

'Zer onura dakar berdintasunak' leloa gogoan, campuseko harreratik pasatzen ziren guztiei galdera hori egin zitzaion, beraien erantzunak argazkietan jasoz.

Jarduera hau Emakundek bultzatzen duen X. Berdintasunaren Gunea-ren baitan kokatzen da, hau da, urriaren zehar egiten ari diren ekintzetako bat izan zela. Ekintza honen antolaketan Fakultateko berdintasun taldeaz gain ikasle eta irakasleen parte-hartzea azpimarratu behar da.

COMIENZA EL VIAJE DE APRENDIZAJE OTOÑAL EN FINLANDIA

Los 'pingüinos' de Oñate e Irún viajaron a Finlandia el pasado 9 de octubre innovando en relación al propio viaje de aprendizaje ya que estuvieron en dos localizaciones al mismo tiempo. El viaje de aprendizaje discurrió entre Jyväskylä Timmi Akademia y Salo Bisnes Akademia, de manera que hubo 2 equipos en cada lugar. Además, tratando de mezclar más a nuestros pingüinos, un equipo de cada Lab fue al emplazamiento del otro.

Jyväskylä es una vieja conocida de MTA pero el reto este año pasa por estar en Salo como nuevo destino en Finlandia. La Universidad de Turku de Ciencias Aplicadas nos ha acogido realmente bien.

CONGRESO INTERNACIONAL 'SEMILLAS, CULTIVANDO EL FUTURO DEL SABOR'

EL CONSEJO ASesor INTERNACIONAL DE BASQUE CULINARY CENTER HA ORGANIZADO EN NUEVA YORK EL CONGRESO 'SEMILLAS, CULTIVANDO EL FUTURO DEL SABOR'. HAN ASISTIDO 120 PERSONAS, ENTRE ELLOS COCINEROS, PRODUCTORES DE SEMILLAS, AGRICULTORES, LEGISLADORES, PERIODISTAS Y ESTUDIANTES.

Ésta ha sido la cuarta reunión internacional del Basque Culinary Center, también conocida como el G9, ahora G11 de la gastronomía. El Consejo Asesor Internacional del Basque Culinary Center anualmente está reflexionando y debatiendo sobre diferentes temáticas vinculadas a la gastronomía y afianzándose como un grupo de reflexión estratégica, en línea con la misión del Basque Culinary Center, la Universidad de los Chefs. Este encuentro ha supuesto la oportunidad de lograr una reflexión en común entre cocineros, agricultores y productores de semillas ("breeders").

"Como cocineros, estamos acostumbrados a pensar que solo tenemos dos opciones: la tradicional o Monsanto. Pero hay otro camino". Con estas palabras, Dan Barber dio la bienvenida a las 120 cocineros, científicos y periodistas que se reunieron en su restaurante y granja, Blue Hill at Stone Barns, el 23 de septiembre para celebrar un simposio con ocasión de la reunión anual del consejo internacional del BCC.

Los productores de semillas presentaron su trabajo y, a continuación, los cocineros presentes contaron sus experiencias con estos productores de semillas para producir semillas y plantas nuevas. Se constató que los cocineros pueden servir como puente entre los productores y los pequeños agricultores, y trabajando con ambos, pueden innovar no solo en sus cocinas, sino desde el propio campo.



CERCA DE LOS AGRICULTORES

En palabras de Gastón Acurio: "Hemos trabajado mucho para estar cerca de nuestros pequeños agricultores, intentando ayudarlos a conectarse con los mercados, poniendo en valor sus productos, buscando que las ciudades finalmente agradezcan su rol en la historia de la gastronomía".

LOS BREEDERS, DECISIVOS

"Las que viajan son las semillas, no los productos. Los 'breeders' son personajes aún desconocidos por la mayoría de los cocineros; sin embargo, juegan un rol decisivo en encontrar caminos nuevos para los pequeños agricultores. Son agricultores y científicos a la vez, amantes del progreso", afirma Jon Roca.

Roca, por otra parte, añade también lo siguiente: "En cada territorio históricamente los productores de semillas han cruzado semillas para domesticar patatas y tomates o para encontrar nuevas variedades que sumar a su tradición; hoy, los productores comprometidos hacen lo mismo: investigan y cruzan semillas explorando productos cada vez más deliciosos con rentabilidades a veces cinco veces mayores. Traen calidad y prosperidad, pero no cobran por las semillas que descubren, sino

que las ponen al servicio de la humanidad. Es la respuesta más contundente y eficaz a aquellos que defienden como única alternativa de progreso a las semillas propiedad de unas pocas compañías mundiales. Es el comprender que la tradición y la innovación no son incompatibles. Que pueden vivir en armonía llevando identidad y prosperidad allí donde se requiera".

De hecho, el propio Gastón Acurio señala que "si nunca han escuchado hablar de los breeders, cocineros del mundo, búsquelos. Allí están, en sus centros de innovación agrícola, en sus universidades, en sus campos, sus valles, sus terruños. Reconocer su rol, su conocimiento, su entrega es algo nuevo y mágico. Esta colaboración con los productores de semillas es una gran oportunidad para proteger y aumentar la diversidad".

UN CAMPO NUEVO

Según Acurio, se trata de un campo nuevo que se abre a los cocineros: son "cosas que hacíamos intuitivamente, ahora se nos abre un nuevo campo de trabajo". Reflexión que comparten tanto Alex Atala como Harold McGee, científico e invitado especial del Consejo.

ENPLEGURAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA

“ORIENTAZIOA ESKAINTZEN DIEGU LAN BILAKETA PROZESUAN”

MU-K IAZKO IRAILEAN ZABALDU ZUEN ENPLEGURAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA, LANERAKO PREST DAUDEN PERTSO-NEI ORIENTAZIOA ESKAINTZEKO ASMOZ. JOSE MANUEL BERGARETXE ETA KARMELE MANZISIDOR DIRA BULEGOKO ARDURADUNAK.

Ikasle ohiak eta azkeneko urteko ikasleak kontuan hartuta 454 pertsona pasatu dira bulegotik urtebetean, gehienak Ingeniaritzako ikasleak. Bulegoak orientazioa eskaintzen du, eta baita tailerrak ere: sei elkarrizketa-tailer egin dituzte, lan-bilaketa tailerrak 16, eta atzerriko aukeren tailer bakarra. Lanbiden izena emateko tramitazio gutzia ere egiten dute.

**Urtebete daramazue zerbitzua-
rekin. Nolako balorazioa egiten
duzue?**

Karmele Manzisidor: Balorazio positiboa egiten dugu. Lanbiderekin hitzartutako akordioa izan zen. Helburu batzuk jarri zizkiguten eta horiek ondo gainditu ditugu. Lehenengo hilabeteetan zerbitzua ezagutzera ematea izan zen gure lana; orain gero eta lan gehiagorekin gabilta eta oso pozik gaude.

Zer eskaintzen duzue?

Jose Manuel Bergaretxe: Guk orientazioa eskaintzen diegu ikasketak amaitu eta lanerako prest dauden pertsoneri. Batetik, lan

merkatua zein den deskribatzen diegu, eta zer irteera profesional izan ditzaketen; bestetik, helburu, behar eta baliabideak zeintzuk diren definitu eta denon artean ibilbide bat diseinatzen ahalegintzen gara. Hori izango litzateke lanerako prest dauden pertsoneri egiten zaien lehenengo orientazioa. Baina, euren beharren arabera, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu: adibidez, lan elkarrizketa prestatzea, edo test psikotekniko ei buruzko informazioa. Azken finean, edozein lan bilaketa prozesutan izan daitezkeen beharrei erantzuten saiatzen gara.

“Unibertsitatek lanarekin irteten direnen kopurua jaitsi egin da eta hauen lan baldintzak ere kaskartu egin dira”.

Ikasketak amaitu dituztenei zuzendutako zerbitzua da?

K.M: Bai, amaitu edo amaitzear dituztenei, azkenengo mailako ikasleekin ere egoten baiera. Egungo lan egoera ikusita, orain urte batzuk ikasketak amaitu zituztenak ere etortzen dira gurera.

J.M.B: Orain dela urte batzuk ikasketak amaitu arren, oraindik ere lan bila dabiltzanak daude. Horiek ez dute orientaziorik behar izaten, lan poltsan izena ematea baizik. MUKideren bitartez MUK

bere lan poltsa propioa dauka, ikasle ohiari zuzendutakoa. Gure lanetako bat da lan poltsa hori dinamizatzea. Baita, enprekin kontaktuan jarri eta bertako profilak zeintzuk diren azaldu eta lan aukeraren bat sortzen bada bitartekaritza lana egitea ere. Ikasketak amaitu berri dituenak orientazioa behar du, lan merkatuak nola funtzionatzen duen jakiteko; bestetik, lan poltsan izena ematea gura izaten dute.

Ikasketak amaitu dituzten zenbat pasatu dira bulegotik?

K.M: Ikasle ohiak eta azkeneko urteko ikasleak kontuan hartuta, 454 pasatu dira bulegotik. Gehienak Ingeniaritzako ikasleak izan ziren, 345; gainerakoak Enpresagintzakoak eta HUEZIKOAK.

MUtik ikasleen ehuneko polit bat lanarekin irteten da. Nabaritzen duzue hori?

K.M: Bai, laneratze-indize altua daukate; baina, asko izan arren praktikak edo proiektua enpresan egin eta lanean ban geratzen diren ikasleak, hauen kopurua gutxitu egin da. Lan poltsako ikasle kopuruak gora egin du azkenengo urteetan.

J.M.B: Lanarekin irteten direnen kopurua jaitsi egin da eta hauen lan baldintzak ere kaskartu egin dira. Asko bekadun bezala hasten dira lanean edo aldi baterako kontratuekin.

Zein behar asetzeko zabaldu zenuten bulegoa orain dela urtebete?

J.M.B: Unibertsitateak Lanbiderekin kolaboratzeko aukera



ARGAZKIA: ARTEMAN

ikusita ireki zuen bulegoa. Orain dela urte batzuk laneratze-indize altua zegoen; hala, enpresan lanean geratzen zen ikasleak ez zuen zalantzan jartzen hainbat gai. Orain, zalantzan jartzen dituzte hainbat gauza eta orientazio zerbitzu horren beharra handitu egin da. “Beste lan mota bat behar dut? Zer aukera mota daude merkatuan?...” Lan kontratu barikhasi behar badute, galdetzen dute ea zer aukera daukaten atzerrian, ea lan kontraturik dagoen... Lana bilatzeko modua ere aldatu egin da. Sare sozialak garrantzitsu bilakatu dira, segun eta zein fakultatetan gehiago, gainera: curriculum digitala, identitate digitala, sareko presentzia, etab.

MANZISIDOR Y BERGARETXE son los responsables de esta oficina; el pasado año 454 personas se dirigieron a la misma.

Ikasketak amaitu berri dituzten horiek behar komunak dituzte?

K.M: Orokorrean denek antzeko kontsultak egiten dituzte: curriculum egoki bat nola egiten den, nora eta nola bideratu, aukeraketa prozesuak nolakoak izaten diren, elkarrizketa baten egiten dituzten galderak, etab.

J.M.B: Nik aipatuko nuke ikasleek lan merkatuaren nahiko ikuspegi beltza dutela. Gizarteak ere orokorrean ikuspegi ezkorra du, baina 23-24 urteko pertsona batek gauza berri asko dauzka egiteko eta eraikitzeke eta bere ikuspegia baikorragoa izan beharko litzateke, horretan saiatzen gara.

Zein erronka duzue esku artean?

J.M.B: Orain arte moduan, bitartekaritza eta orientazio lanarekin jarraituko dugu. Aurtengo erronka nagusia enplegu zentroa dinamizatzea izango da: hitzaldiak antolatu, jende espezializatua ekarri, esperientzia ezberdinen berri eman.

Lanbiden izena emateko aukera ere eskaintzen duzue.

J.M.B: MU eta Lanbideren arteko akordioari esker Lanbiden izena emateko aukera dute ikasle ohiek, Lanbideko bulegoetara joan barik. Hemen kudeatzen duguguztia. Lanbideko eta MUKideko lan-poltsan eman dezakete izena, gura izanez gero.

MU PLUS-EN IKASLE KOPURUA ETA ASETASUN MAILA GORANTZ

MU-K EZAGUTZERA EMAN DITU 2012-2013 IKASTURTEAN MU PLUS-EN BITARTEZ IKASTEN ARITU DIREN PROFESIONALEN KOPURUAK. 5.992 IKASLE HARTU DITU EKIMENAK ETA GUZTIEN ARTEAN 22.052 ORDU ZENBATU DITUZTE. MODALITATE HONEK DUEN HARRERA ONA NABARMENDU DUTE ARDURADUNEK.

Goi Eskola Politeknikoan 3.570 ikasle izan dituzte MU PLUSen baitan, horietatik 70ek graduondokoak egin dituzte eta 3.500ek gainontzeko modalitateak aukeratu dituzte.

MU PLUSen arduradunak pozik daude izan duten ikasle kopuruarekin. MUK enpresekin duen harreman zuzenaren ondorioz, ondo baino hobeto ezagutzen ditu enpresa eta enpresetako arduradunen beharrik. Horretaz baliatuta diseinatzeko dira enpresei zuzendutako ikasketak, beraien premiekin guztiz bat datozenak. Hori da MU PLUS bidez hainbeste profesional ikasten ibiltzearen arrazoa.

IKASLEEN 8,1EKO ASETASUNA

Bestalde, jakitera eman da, baita ere, MU PLUSeko ikasleen asetasun maila. Egindako inkestaren arabera, modalitate honetako ikasleek batez beste 8,1eko puntuazioa eman diote 2012-2013 ikasturtean jasotako formazioari. 2009-2010 ikasturtean batez besteko asebetetze maila 7,83koaz eta kurtsoz kurtso gorantz doa.

Asebetetze horretan zerikusi zuzena du MU PLUSen eskaintzan hainbat aukera berrituta egoteak. Izan ere, fakultate, erakunde zein enpresetan egiten diren ikastaro presentzialez gain, zeregin profesionalak eta familiakoak uztartu ahal izateko moduko *on line* ikastaroak ere badaude.



In Company prestakuntza den heinean, zuzenean eta enpresentzat diseinatutako eskaintza da; egunerokotasunean sortutako arazoei irtenbidea bilatu eta emaitzak lortzeko formazioa, eta aholkularitza zerbitzuak bere gain

hartzen dituen. Horiel horrela, kasu askotan enpresak duen arazo baten aurrean, horren diagnostikoa egin, erakunde edo enpresaren ezaugarrien arabera irtenbidea diseinatu eta martxan jartzen dute.

2012/2013 IKASTURTEA / IKASLE KOPURUA / ORDU KOPURUA

	GEP	ENPRESAGINTZA	HUHEZI	BCC	GUZTIRA
Ikasle Kopurua:	3.570	827	1.119	457	5.992
• Graduondoak*	70	149	119	44	
• Gainontzekoak:					
Formazio Iraunkorra	3.500	678	1.000	413	
Ordu Kopurua: (h)	7.500	5.571	8.600	2.136	22.052
• Graduondoak*	1.500	3.677	6.100	1.295	1.688
• Gainontzekoak:					
Formazio Iraunkorra	6.000	1.894	2.500	841	10.364

*Graduondoak: Master + Aditu titulua (MU plus)

MU PLUS-EKO IKASLEEN ASETASUN MAILA OROKORRA IKASTURTEKA

	09-10	10-11	11-12	12-13
GEP	8,2	8,04	7,95	8,1
HUHEZI	7,83	7,91	7,94	8,1
ENPRESAGINTZA	7,8	7,74	8,44	8,5
GASTRONOMIA Z.F.		8,23	8,66	8,97
BATEZ BESTEKOAK	7,83	7,91	7,94	8,1



(+)
 MONDRAGON
 UNIBERTSITATEA
 MU PLUS

ENPRESAGINTZA

“INGELESA IKASGAI GEHIAGOTAN ESKAINI BEHARKO LITZATEKE”

JOKIN LASPIURLOPEZEK 2004AN BUKATU ZITUEN IKASKETAK MONDRAGON UNIBERTSITATEAN. ENPRESAGINTZA FAKULTATEAN IKASI ZUEN, ETA GAUR EGUN MONDRAGON KORPORAZIOAN DABILLANEAN, MASTER BUKAERAKO PROIEKTUA BERTAN EGIN ONDOREN. GAUR EGUN TXINAN BIZI DA, IETA GAUR EGUN MONDRAGON KORPORAZIOAREN ORDEZKARIETAKO BAT DA ASIAN.

Nola gogoratzen dituzu ikasle garaiak?

Egia esan oroitza penoneko garaiak izan ziren. Ikasleen arteko giroa oso onazena, eta baita irakasleekin geneukan harremana ere. Gaur egun, oraindik kontaktuan jarraitzen dugu eta egia esan garai politak izan ziren ETEOn igarotakoak. Hala ere, behin lanean egonda... ez dakit ikastera bueltatuko nintzatekeen ala ez.

Zein da ikasle garaian izan duzun oroitza pen gogokoena?


LADEko euskarazko lehenengo promozioa izatea da dudan oroitza penik onena. Hala ere, hizkuntzei dagokienez, uste dut ingelesa ikasgai gehiagotan erabili beharko litzatekeela. Gaur egun, gure enpresetan nazioartetza eragin handia dauka.

Ikasle eta irakasleekin harremanik gordetzen duzu?

Bai, gertuko lagunekin mantentzen dut harremana. Gainera, irakasle batzuekin ere, lan kon-tuak medio, badut erlazioa. Ikasleei Asiako ordezkari zetan proiektu aukerak ematen saiatzen gara. Unibertsitatearekin ere koordinatzen gara zenbait mintegi eta jardunaldi eskaintzeko.

Ikasle ohienelkartean parte hartzen duzu?

Ez, Txinan urte asko bizi izan naiz eta egia esan, ez dut horre-



JOKIN LASPIUR
Realizó sus estudios en la facultad de Enpresagintza y desarrolló su proyecto de fin de carrera en la Corporación. Vive en China donde trabaja para la Corporación.

Asiako ordezkari zetan

bitartez egiten diren

erosketa zuzendaria naiz

eta aholkularitza proiektuen

kordinatzaile.

tarako astirik izan. Esan daiteke, harreman hori galdu egin dudala moduren batean.

Ikasketak amaitu ondoren, lanean hasi zinen?

Bai, masterra ETEOn egin nuen, eta master bukaerako

proiektua MONDRAGON Korporazioan, Nazioartekotze Departamentuan. Bertan jarraitzen dut oraindik, Asiako ordezkari zekin lanean.

Gaur egun Asia eta Debagoiena artean ibiltzen zara. Nola darazazu?

Txinan zortzi urtez bizi izan ondoren, Euskal Herrira bueltatzea arraro samarra egin zitzaidan. Hala ere, nahiz eta hona bueltatu, nire lanak bidaiatzen jarraitzeko aukera ematen dit eta oso gustura nago. Dagoeneko, ia hamaika urte daramatzat MONDRAGONen.

Zein da zure egitekoa?

Asiako ordezkari zetan bitartez egiten diren erosketen zuzendaria naiz eta aholkularitza proiektuen kordinatzaile.

GEP

AZ91E MG ALEAZIOAREN

AZ91E Mg aleazioaren grabitate bidezko galdataketatik sorturiko mikroegitura deskribatzeko eredu proposatuta. Horretarako, Calphada akoplatutako hazi ekiaxikoen hazketa kuantitatiboki kalkulatu da, makro eta mikroeskalak kontutan hartuz. Konputazio termodinamikoak fase eta elementu anitzeko sistemak kalkulatzeko ahalbidetzen du. Hozte kurba zehatzagoak, azken ale tamaina ertaina, adar sekundarioen tartea, fase banaketa eta berauen konposizioa eta askatutako bero sorra lortuz emaitza modura.



HARITZ SARRIEGUI ha analizado la microestructura creada a través de la fundición mediante aleación.

GEP

TENTSIO ERTAINEKO BIHURGAILUA

Tesi honetan tentsio ertaineko bihurgailutara zuzenduriko diseinu metodologia optimizatu bat garatu da diseinu erabakiak formalizatzeko helburuarekin. Proposaturiko metodologian oinarrituz, diseinu erremintabat garatu eta hau 3kV eta 8MVAko sarera konektaturiko bihurgailu bat diseinatzeko aplikatu da. Azkenik, bihurgailu honen nukleo edo PEBBa, hiru mailako NPC topologiadun arrama batean datzana, eraiki eta esperimentalki balioztatu da.



JON SAN SEBASTIAN ha estudiado la metodología optimizada para convertidores de media tensión.

HUHEZI

CARTOGRAFÍAS DE UN DISCURSO

La obra del escritor y periodista vasco Martin Ugalde constituye un objeto de estudio particularmente idóneo para los denominados Estudios Culturales; enfoque que trata de contextualizar el hecho cultural en las coordenadas sociales en el que se produce y muestra un interés central por prácticas y discursos que por razones diversas han quedado relegadas del canon de la cultura consagrada a pesar de su indiscutible relevancia social.



LARRAITZ ARIZNABARRETAK Martin Ugalde idazle eta kazetariaren lanak aztertu ditu.

GEP

CONTROL SENSORLESS

Esta tesis doctoral estudia diferentes estrategias de control sensorless, para máquinas síncronas de imanes permanentes (PMSM) orientadas a la tracción ferroviaria. Se propone una estrategia completa que integra diferentes métodos de modulación, técnicas de control de par y flujo y algoritmos sensorless cumpliendo con los requerimientos y funcionalidades de la aplicación. La estrategia ha sido validada en una plataforma de tracción ferroviaria.



MAITANE AGIRREK aztergai izan ditu trenen trakziarako imanezko makina sinkronoentzat sentzore gabeko kontrol estrategiak.

GEP

INNOVACIÓN DEL SECTOR FERROVIARIO

Siguiendo la tendencia innovadora de las principales empresas industriales del sector ferroviario, las cuales ya están utilizando motores PMSM en sus productos comerciales, y motivada por la necesidad de un mayor conocimiento sobre el control para este tipo de motores, esta tesis estudia y analiza la implementación de un control robusto y eficiente basado en el control directo de par (DSC) que cumpla los requisitos propios de la aplicación.



CARLO CALLEJAK DSC edo biko zuzeneko kontrolean oinarritutako motorren funtzionamendua aztertu du.

HUHEZI

KULTURA ONDAREAREN TRANSMISIOA

Zer eta nola transmititzen eta eraikitzen dute Debagoieneko lehen hezkuntzako ikastetxeek (hezkuntza formalak) ingurune hurbileko (herriko, eskualdeko) kultura ondarea? Zer eragin dute transmisio eta eraikuntza horretan beste gainontzeko hezkuntza eragileek (ez-formal, informal)? Nola hobetu kultura ondarearen irakaskuntza eta ikasketen transmisioa eraikuntza horren mesederako? Hauek dira gure tesi ikerketa honetara bultzatu gaituzten kezak eta egitasmoak.



IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ estudia la transmisión cultural de los centros de Educación Primaria en Debagoiena.

MUNDUKIDE

20 EURO, BATZUETAN GUTXI
ETA BESTEETAN ASKO

20 EUROKO KREDITUEK EUSKAL HERRIAN EZ DUTE EGOERA ASKO ALDATZEN, BAINA MOZAMBIKEN GAUZA HANDIAK EGIN DITZAKETE. MUNDUKIDEK PROIEKTU BAT ABIARAZI DU ETA MIKROKREDITU HORIEN BIDEZ HANGO NEKAZARIAK LAGUNTZEN DITUZTE, HAIEN PREMIAN BAITAUDE FAMILIA ASKO.

20 euroko kredituak eskatzea ez da batere ohikoa Euskal Herrian, ez baitkaituzte larrialdi handietatik ateratzen. Munduko hainbat herrialdetan, berriz, euro gutxi horiek gauza handiak egin ditzakete, Mozambiken esaterako. Mundukidek proiektu berri bat abiarazi du, Mozambikoko nekazari kreditu bat ematen diena.

Nekazari horiei mikrokredituak ematen zaizkie, 20 eta 200 euro artean kokatzen direnak.

Lehenengo kreditua 20 eurokoa izan ohi da, beraien uzta aurrera ateratzeko. 6 eta 8 partaideko familiak izaten dira kreditua jasotzen dutenak. Diru horrek haien uztaren kantitate eta kalitatea bermatzen du, han izurriteen eta eguraldiaren baldintzapean baitaude. Azken batean, diru horrek familien gosea ekidin dezake, baita gaixotasunak ere. Mikro kreditu hauekin, gainera, ez dituzte familien beharrak bakarrik asetzen, produktuak merkaturatzeko aukera ere ematen diete.

Normalean baserriko lanabesak edo haziak erosteko izaten diren arren, nekazariak erabakitzen du mikrokreditu horiekin zer egin. Diru kopuru hau nekazaritza kanpaina hasten denean banatzen da, haziak eriteko ordua iristen denean, euritea hasi aurretik.

Kanpainako emaitzak lortzerako orduan itzultzen da dirua. Lehenengo sei hilabeteetan ez

CRÉDITOS DE 20 EUROS, para apoyar a los y las agricultoras de Mozambique.

dute interesik izaten, baina hurrengo seietan, berriz, interesa badaukate, oso txikia izaten den arren, alegia %1ekoa. Horrelako kredituak eskaintzen dizkien beste erakunderik ez dago, eta egongo balitz ere interesak askoz handiagoak izango lirateke eta gizon-emakumeek ezingo lituzkete ordaindu.

Emakumeek herrialde horietan ez dute garrantzi handirik izaten, baina kreditu hauen bitartez garrantzi hori handitu egiten da, kreditua gizonak eta emakumeak sinatu behar baitute. Emakumea eta gizona izaten dira kreditu horren arduradun hori, beraien ohituretan ohikoa ez den arren. Kredituak eman baino lehen, gainera, ez zaie paperik eskatzen, baina familia bakoitzaren etxea bisitatzen da berau non dagoen jakiteko eta familiako lanen funtzionamendua onartu bermatzeko.

Jarraipen bilerak egiten dira urtero, nekazari urtea nola doakien ikusi eta aztertzeko. Nekazari arazoren bat sortuz gero, irtenbideak bilatzen saiatzen dira beranduegi izan baino lehen. Nekazari horiek jakinaren gainean daude, dirua bueltatzen ez badute hurrengo kanpainan ez dutela aukerarik izango krediturik eskatzeko; aukeratik kanpo gelditzen dira kasu horietan.

Horrelako edo antzeko egoe-rak sailhesteko, azken urte haue-tan herrixketan kreditu taldeak sortu dira. Talde guztiaren ardur-a bihurtzen da dirua itzultzea; bestela, taldeko gainontzeko familia guztiak gelditzen dira kreditu aukeratik kanpo. Honen guztiaren helburua, familien arteko elkartasuna eta talde izae-ra sustatzea da.

Aldiz, dirua behar den beza-la itzultzen badute, hurrengo urtean kreditu handiago bat eskatzeko aukera izaten dute familiek eta, horrela, pixkanaka bizitza hobetzeko aukera ere zabaldu egiten zaie.

MU-KO KIROL ZERBITZUAK


BIZIKLETAREN ERABILERA GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN



Nestor Arana
Irakaslea.



Aitor Urbina
Ikaslea.



Endika Mugarra
Ikaslea.

ABENDUAN ARRASATEKO URIBARRI-LORAMENDI GUNEETAN EGINO DEN TAO-REN EZARPENAK MUGIKORTASUNAREN ARLOAN IZANGO DUEN ERAGINAZ HAIEN IRITZIA EMAN DIGUTE BI IKASLEK ETA IRAKASLE BATEK.

Erabiltzen al duzue bizikleta unibertsitatera etortzeko?

Nestor: Bi urte daramatzat bizikletan etorri gabe, baina lehen erabiltzen nuen. Eskoriatzatik luzeegia egiten da, eta Olandixoko tunelak kotxez etortzeko erosoago egiten du bidaia.

Aitor: Ez dut bizikletarik erabiltzen unibertsitatera etortzeko, oinez etortzen naiz.

Endika: Ez dut bizikletarik erabiltzen unibertsitatera joateko.

Beharra ikusten duzu unibertsitatean alokairuko bizikletak jartzeko? Jarriko balituzte erabiliko zenituzke?

Nestor: Oso ondo egongo litzateke unibertsitatean bizikletak jartzea. Goi Eskola Politekniko

koa eta Garaia berrikuntza gunearen arteko distantzia nahiko handia da eta jendeak zerbitzu hori erabiliko lukeela uste dut. Nik neuk erabiliko nuke, autoa aparkatzeko arazoak egoten baitira eta horrek gauzak erraztuko litzuzke.

Aitor: Beharrik ez dut ikusten, baina erabiliko litzatekeela uste dut. Bai unibertsitatean ibiltzeko, haien artean garraiatzeko edo buelta bat emateko. Aretxabale-tara joan-etorriak egiteko ere erabiliko litzatekeelakoan nago.

Endika: Ez dut bizikletarik jartzeko beharrik ikusten. Nik berdin jarraituko nuke, ez nuke erabiliko.

Bizikletak aparkatzeko toki falta sumatzen duzu? Non?

Nestor: Garaia berrikuntza gunean adibidez abantaila bat badaukagu. Garajea dugu eta bertan, bizikletak aparkatzeko aukera badago. GEPen, berriz, leku bakarra dago aparkatzeko, 7. eraikuntzaren ondoan. Beste eraikuntzetatik urruti geratzen da eta ez da batere eroso. Euria eginez gero, gainera, busti egiten dira.

ARANA, URBINA Y MUGARRA profesore y alumnos de EPS respectivamente aportan su opinión sobre la movilidad en bicicleta.

Aitor: Leku falta sumatzen dut bai. Bizikletan datozenek faroletan edo hesietan lotuta uzten dituzte bizikletak, lekurik ez dagoelako.

Endika: Leku falta dago. Unibertsitatera sartu edo ateratzen naizenean faroletan ikusten ditut lotuta.

TAO ezartzen denean, uste duzu bizikleten erabilera handitu egingo dela? Zure kasuan?

Nestor: Beno, ni bizikleta elektrikoa erostekotan nago. Udan gazteak ikusi izan ditut, baina gutxi batzuk besterik ez. TAOekin bizikletaz etortzen den ikasle kopurua handitu egingo dela uste dut, baina kopurua gutxi igoko delakoan nago.

Aitor: Ez dut uste bizikletaren erabilera handituko denik. Azken batean, autoz datozenak urrutitik etortzen dira eta horiek bizikletan etortzea zaila da. Beraz, ez dut uste handituko denik.

Endika: Erabilera ez da handituko. Nire kasuan behintzat berdin jarraituko du.

NAZIOARTERATZEA

200 IKASLE INGURU JASOKO DITU MU-K
IKASTURTE HONETAN

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK NAZIOARTEKO HAINBAT PROGRAMAREN BIDEZ 105 IKASLE JASO DITU LEHENENGO SEIHILEKOAN. HALA ERE, URTEAN ZEHAR, 200 IKASLE INGURU JASOKO DITU. IKASLE GEHIEN DAKARTEN PROGRAMAK ERASMUS ETA LAMENITEC IZAN OHI DIRA.

MUko errektore Iosu Zabalak eta errektoreorde Jon Altunak harrera egin zieten joan den irailaren 26an MUra etorri diren 105 ikasle atzerritarrei. MU aitzindari izan zen 1972an; izan ere, Goi Eskola Politeknikotik ikasleak atzerrira bidaltzen hasi zen. Hau dena gainera, Espainiako Estatuak ikasle trukea abiatu baino lehen izan zen.

Ikasturte honetan 200 ikasle atzerritar inguru hartuko dituzte unibertsitateko ikasgelek, euren prestakuntzaren zati bat landu dezaten. Unibertsitateak hainbat hitzarmen ditu Europako, Ipar eta Hego Amerikako eta Asiako ehundik gora unibertsitate ospetsuekin, eta horrek ikasleak eta irakasleak mugikortasuna errazten du.

2012-2013ko datuak ikusirik, Mondragon Unibertsitateko 434 ikasle joan ziren atzerrira Erasmus programaren bitartez. Horietako

214 ikasten egon ziren eta 220ek praktikak egin zituzten enpresa eta erakundeetan, baita irakuntza bidaiak ere. Gurera, berriz, 78 ikasle etorri ziren, 71 ikastera eta 7 praktikak eta proiektuak egi-tera. Horretaz gain, 142 ikasle ere etorri ziren MUra beste hainbat programaren bitartez.

ERASMUS IKASLEAK AURTEN

2013-2014 ikasturteko lehenengo sei hilekoan, berriz, HUHEZIK Erasmus programaren bidez, Letonia eta Herbeheretako 9 ikasle jasoko ditu. Enpresagintza fakultateak, berriz, gehienbat bi programen bidez jasoko ditu 18 ikasle, alegia Erasmus eta Lame-

MOVILIDAD. MU siempre ha considerado fundamental la movilidad de los estudiantes para conseguir una formación completa.

nitec programekin. Hainbat jatorritako ikasleak dira: finlandiarrak, mexikarrak, hungariarrak, alemaniarrak, kanadarrak eta belgikarrak. Bi programa horien bitartez, halaber, Goi Eskola Politeknikoak 50 ikasle jasoko ditu; horien artean ere hainbat nazionalitate aurkituko ditugu. Bukatzeko, Gastronomía Zientzien Fakultateak 28 ikasle jasoko ditu.

Ikasle eta irakasle nazioartean joan-etorria bultzatzeko, Mondragon Unibertsitateak orain dela bost urte proiektu bat atara zuen Mondragon Educación Internacional (MEI) erakundearen eskutik. Latinoamerikan, batez ere, hezkuntza proiektuak lantzeko xedearekin ekin zitzaion. Hezkuntza proiektu hauek laguntza proiektuak dira eta Mondragon Unibertsitatearen unibertsitate eredua hedatzen dute, herrialde horietako Goi Mailako Hezkuntza erakundeetan parte hartuz eta horiek kudeatuz.

Erakundearen nazioarteko egitasmoaren bidez, beste era batera heltzen zaio unibertsitatearen nazioarteratze estrategiari. Honen bitartez, Mondragon Unibertsitateak duen ikuspuntuarekin bat datozen ikastetxeak sortzeko aukera ematen du. Horren adibideak Mexikon eta Kolonbian aurki ditzakegu.

2012-2013ko datuak ikusirik, Mondragon Unibertsitateko 434 ikasle joan ziren atzerrira Erasmus programaren bitartez.

AZAROA

- KOOPERATIBAGINTZAN ADITU-TITULUAREN 6. EDIZIOA
Azaroaren 8an Eskoriatzan
 - PROIEKTUEN ZUZENDARITZA
 - Programa para la Certificación PMP
22/11/2013 (Bilbo)
 - Liderazgo cooperativo: Trabajo en Equipo. Metodología BELBIN.
28/11/2013 (Berriz-Bizkaia)
- ww. mondragon.edu/muplus*

ABENDUA

- AUTOMATIZAZIOA
 - Curso Comunicaciones Industriales 05/12/2013 (Arrasate)
 - Curso Seguridad en Máquinas 17/12/2013 (Arrasate)

URTARRILA

- HERRIKO EUSKALGINTZA JANZTEN ADITU TITULUA
Urtarrilaren 7an hasita, Aretxabaletako campusean.
- AUTOMATIZAZIOA
 - Curso Avanzado en Automatización Industrial
14/01/2014 (Arrasate)
- EGOKITZAPEN KURTSOAK
 - Ingeniari Mekanikoentzako Egokitze kurtsoa (*On line*)
 - Ingeniari elektronikoentzako Egokitze kurtsoa (*On line*)
- MASTER INTERNACIONAL
 - Intraemprendizaje e Innovación Colaborativa
http://mondragonteamacademy.com/10/minn
 - Ingeniari elektronikoentzako Egokitze kurtsoa (*On line*)

OTSAILA

- KOMUNIKALDIAK JARDUNALDIA
Otsailaren 27an, Garaia Berrikuntza Gunean (Arrasaten)
- Máster Profesional en Energía Eléctrica
01/02/2014 (Bilbo)
- INDUSTRI KUDEAKETA
 - Máster Executive en Dirección de Operaciones (MDO)
28/02/2014 (Bilbo)
- MATERIALAK
 - Aceros, Conceptos Generales y Tratamientos Térmicos
17/02/2014 (Arrasate)
- MASTER
 - Coaching de Personas y Equipos.
http://www.mondragon.edu/muplus/mastercoaching
- CURSO EXPERTO
 - Gobierno y Dirección Ejecutiva en Instituciones Locales y Territoriales.
http://www.mondragon.edu/muplus/gobernanza
 - Liderazgo de Equipos y Personas
http://www.mondragon.edu/muplus/liderazgoequipos
- CURSO AVANZADO
 - Marketing
http://www.mondragon.edu/muplus/cam
 - Finanzas
http://www.mondragon.edu/muplus/caf



Komunikazioan, diseinuan
eta marketinean adituak.

IKUS-ENTZUNEZKOAK


DISEINUA

KAZETARITZA

INTERNET

AHOLKULARITZA

www.arteman.org



baserrisarea.com

Debagoieneko landa eremuaren erakusleihoa



DEBAGOIENA
ZURE
GOZAMENERAKO



DEBAGOIENA
ZURE
ZERBITZURA



DEBAGOIENA
ERAMAN
ZUREKIN

- :: Gure ekoizleen produktuak baserritik etxera
- :: Landa bizitza eta ondare historikoa
- :: Gune interesgariak eta ibilbide naturalak
- :: ...eta askoz gehiago!

Debagoiena
BASERRI
SAREA
Auzolanean Zurekin

